

BIGARREN ARGITALPENAREN AITZIN - SOLASA

Bost urte datoz liburu honi ene aintzin-solas hura egin niola. Mezu egin nezan berabe nintzela orduan. Hau da, gauzak esateko beldurrez, zeren oraindik erromantikuen ugar-tea zirudian gure literaturaren inguruak, edo hobeto esan, haiek zeuden gailen, etorkizunari baino joandako munduari gehiago begiratzen zioten motako erromantikuak, eta hitzak ondo neurtu beharra egoan. Bestalde, literaturaren giharrari baino azken mende erdian formatu ziran bizkuntzarekiko iri-tzi estueri askoz gehiago begiratuaz. Eta, honetan ere aurre-tiko idazle zabarrak eta egungo herria aintzat hartu gabe. Beraz, gauzak horrela zeudelarik, bide bortatik ez zan posible sorkunderik.

Gaur, lasaiago mintza gindezke liburu honi buruz, eta ez «Iparragirre» izeneko saria irabazi duelako bakarrik, baizik bertatiko frutuak heltzen ikusi ditugulako. Hala ere, liburuari soilki dagokiona utziko dut, bere ondorenenari itsatsirik, zere lehengo aintzin-solasetik ez dut ez ezer kentzerik eta ez ge-hitzerik. Esanak esan, beude, zeuden bezala. Norma berriko ortografiara jartzea besterik ez dut. Hau da: H-ak ezarri,

PROLOGO

A LA SEGUNDA EDICION

Pronto harán cinco años desde que le hice mi primer prólogo a este libro. Ya dejé advertido entonces que escribía cohibido. Esto es, con miedo de decir las cosas, porque nuestro campo entero literario parecía todavía la isla de los románticos, o mejor dicho, ellos estaban en la cumbre, los románticos de esa clase que mira más al mundo pasado que al porvenir, y había que medir bien las palabras. Por otro lado, tomaba más en consideración los estrechos prejuicios lingüísticos que se habían formado en el medio siglo anterior que el fondo de la literatura. Y no tomaban en cuenta nuestros viejos escritores clásicos ni el pueblo actual. Por lo tanto, estando en esta tesitura las cosas, por este camino no era posible la creación.

Hoy podemos hablar con más claridad sobre este libro, y no solamente porque ha merecido el premio «Iparraguirre», sino porque hemos visto madurar sus frutos. Sin embargo, no tocaré hoy lo que puramente se refiere al libro en sí, sino que me limitaré a sus consecuencias, porque no tengo nada que añadir ni quitar de mi primer prólogo. Las cosas que allí dije, queden allí, como están. No me restaría otra cosa que atenerme a las nuevas normas ortográficas. Es decir: Ponerle las haches,

Orduko Harri eta Herri-k era berria sortu zion gure poesia alorrari, eta ez gutxi euskal literatura guziari. Jo-muga bat irikiko zuen muga bat markatuaz, gure aurrerapenen mugimentu honetan, zeren berakin sortu eta gorpuztu zen euskal poesiaren era berria, X. Lete-ren Egunetik egunera orduen gurpillean poema liburuaren hitzaurrean esaten nuen bezala.

Hau da garaia bere poemak euskal literaturan ondo sustaituak gelditu direla esan genezakeana. Behar bada, gaur, bere liburu hau euskerazko poesia libururik onena dala esatea, askotxo izango da, baina ukatu ezinezkoa zaigu, Aresti-ren liburuak, hoberena izatea bera baino doain hobe duela: era berri bat sortu duen liburu izatea. Gazteen artean jarraitzaileak arkitu zituen, Xabier Lete bera aurrengo dala, eta gure protestadun kanta berrieri iturburuetariko bat sortu zion. Hau ikusiaz, hau aitortuaz, «Iparragirre» sariko mahai-burukoak oso ongi hautatzen jakin dutela esan geneza.

Gaur, gure literaturak beste aurpegi batekin begiratzen du ibaiak ura bezala dakarren etorkizuna.

Hizkuntza bera arkitzen dan larritasun estuak ere lagundu du, bai berari eta bai bere lanari, noski, egon-ezinez, mugimentu berriaren eragile. Nork esan imprimatzaileak nekez argitara zuen liburu hura laister aituko zanik? Zenbait arpi-dedun kaxka-gogorrek baja emanarren, emaitzak ez zituzten eten, eta emaitza horren ondorean etorri da uzta.

Ezin uka poeta honek, bere barnean, bazekarrela profetarrena ere zerbait. Eta ez poesia soilaren aldetik bakarrik, baizik euskeraren aldetik ere bai. Lehendabiziko edizioea eza-gutzen dutenak errez konturatuko dira aintzin-solas hartan H-ak soil, mugazandian bakarrik erabiltzen diren hitz batzuetan bakarrik erabiltzen nituela, eta Arestik orobat here idazkeran. Kontu izan idazkerako bere erabaki hori Baionako Biltzarraren (1964-eko agorrila) aurretikoa dela, gutxienez bere «Maldan Behera» poema luze 1959-garrenekotikoa. Hune honetan, egia esan, ukatu ezinezkoa da euskera orokor batean arduratzen zelarik, mugazandiko influentzia ere bazuela, eta batez ere Mirande eta Iratzeder poeta handi biak irakurtzen zituela, alde honetako beste poeta gazte askoren gisa.

Aquel *Piedra y Pueblo* revolucionó el campo de nuestra poesía, y no poco menos toda la literatura vasca. Marcando un hito, abriría un horizonte en este movimiento de nuestro progreso, porque con él nació y tomó cuerpo la nueva forma de la poesía vasca, como dije en el prólogo del libro de poemas *De día en día en la rueda de las horas* de X. Lete.

Ha llegado la hora en que podemos decir que sus poemas han quedado profundamente entrelazados en la literatura vasca. Quizá sea hoy mucho el decir que este libro es el mejor libro de poesía que se ha escrito en vasco, pero es innegable que el libro de Aresti tiene mejor cualidad que la de ser el mejor: La de ser un libro que ha creado un nuevo estilo. Encontró seguidores entre los jóvenes, siendo el primero el propio Xabier Lete, y abrió un manantial a nuestra nueva canción de protesta. Viendo esto, reconociendo esto, podemos decir que los jurados del premio «Iparragirre» han sabido elegir bien.

Hoy, nuestra literatura mira con otro semblante el porvenir que le viene como el agua al río.

La misma difícil situación en que se encuentra la lengua le ayudó a él, y también naturalmente a su obra, en su inquietud a ser el promotor del nuevo movimiento. ¿Quién hubiera dicho que aquel libro que a duras penas quiso publicar el editor se habría de agotar en poco tiempo? A pesar de que algunos contumaces suscritores se le dieron de baja, los frutos no habían de interrumpirse, y tras los frutos vino la cosecha.

No se puede negar que este poeta, en su interior, traía algo de profeta. Y no solamente considerando la poesía, sino también desde el punto de vista de la lengua. Los que conocen la primera edición se dará cuenta fácilmente que en mi prólogo sólo empleaba la hache en algunas palabras que se emplean únicamente al otro lado de la frontera, y Aresti a todo lo largo de la obra. Hay que tener en cuenta que su decisión de usar esa forma de lenguaje es anterior al Congreso de Bayona (agosto de 1964), por lo menos desde su largo poema «Cuesta Abajo» del año 1959. En este momento, por decir la verdad, es innegable, que en su preocupación por un vascuence general, recibía influencias del otro lado de la frontera, y que, sobre todo, leía a los grandes

Baina Aresti bost urtean aurreratu zitzaigun geroago Baionan Euskal Idazkaritzak antolaturik egin ziren batzarretan hartuko ziren erabakieri (erabakirik gehiantan beintzat). Haiek, mugazandikoak, laurehun urteko tradizioa autsiaz hemendiko ortografia ontzat eman zuten, guk h-ak erabiltzeko kondizio-nearekin. Orduan hartu zuten hemendiko idazle gazteak bide hori; batez ere poetak eta «Jakín» kultura aldizkariaren babespean biltzen zirenak. Arestik aspaldi harturik zuen bidea. Geroago, aurtengo udaran, Ermuan Gerediaga alkarteak eraturik egin ziran euskal idazleen biltzarretan eta azkenik, udazkenean, Euskaltzaindiak Arantzatzun antolatuak, bidea erdi gertatua aurkitu zuten idazle gazteen ekintza gaitik, eta iritziak alde horretara gailendu ziren.

Beraz, literatura euskeraren batasun bideak, beste zenbait idazle eta batez ere poeta gazteekin batera, asko zor dio Arestiri. Eta ez gutxiago euskera liberaturik uzteari; hizkuntzari molde funtzionala itzuliaz, euskal kanta zabarretan bezala. Izan ere, adierazgarria da Mikel Lasa poeta bikainak orduan ikusten zuena, Egan aldizkarian idatzi zuenez (1964, 16-163 orrialdeak), gure hizkuntza gaurko izpirituaren moldera bihurtzeko alegina eta egina. Beraz, Lasa eta Sarasola Aresti-gandik zeharo desberdinak direlarik ere, Arestiren eskua ikusi dute irikitzaile. Hau egiztatua gelditzen da Sarasolaren «Euskalpoesia gaur» lanean (Jakín, 44-gna. 12-19 or., eta 26-gana. 33-38 or., 1967).

Molde zabarren puskatzaile bezala, lehenago ere aipatua zuen. A. Arruek 1963-an «Cuatro poetas vascos actuales» izenez erderaz eman zuen hitzaldian (Euskera aldizkarian argitaratu zen, VIII-IX, 179-198 or., 1963-1964). Lan hau ez nuen ezagutzen nere hitzaurre bura egin nuenean. Eta ordutikako iritziok hor daude azterketa sakonago bati begira. Baina, bitartean, hobea gertatu da, herriak eta poeta gazteak jarraitu diotela: herriak Egun da Santi Mamina, Apurtu de-

poetas Mirande e Iratzeder, igual que otros muchos poetas jóvenes de este lado. Pero Aresti se nos adelantó en cinco años a las decisiones que se tomarían después en las reuniones que se celebraron en Bayona organizadas por el Secretariado Vasco, en la mayoría de las decisiones, por lo menos. Ellos, los del otro lado, rompiendo con una tradición de cuatro siglos, aceptaron la ortografía nuestra, con la condición de que nosotros aceptáramos su hache. Entonces tomaron este camino los escritores jóvenes de aquí; sobre todo, los poetas y los que se reúnen en torno a la revista cultural *Jakin*. Camino que mucho antes había ya tomado Aresti. Después, en las reuniones que hicieron los escritores de Ermua durante el verano organizadas por la Asociación Guelediaga, y las que finalmente organizó la Academia de la Lengua Vasca en Aránzazu, por virtud de la acción de los escritores jóvenes, nos encontramos con el camino medio andado, y las opiniones prevalecieron en ese sentido.

Por lo tanto, la unificación del vascuence literario, juntamente con algunos escritores y sobre todo poetas jóvenes, le debe mucho a Aresti. Y no menos el haber dejado liberado al vascuence; volviéndole a la lengua su molde funcional, como en las viejas canciones vascas. Verdaderamente es digno de señalar el que ya entonces lo viera el gran poeta que es Mikel Lasa, según lo escribió en la revista *Egan* (1964, págs. 161-163), este intento y consecución de volver nuestra lengua a los moldes del espíritu moderno. Por ello, Lasa y Sarasola, a pesar de ser completamente diferentes a Aresti, vieron la mano de Aresti abriéndoles caminos. Esto queda confirmado en el trabajo «La poesía vasca, hoy», de Sarasola (*Jakin*, núm. 44, págs. 12-19, y núm. 46, págs. 33-38, 1967).

Como rompedor de moldes viejos, ya lo había mencionado A. Arrúe en la conferencia «Cuatro poetas vascos actuales» que en castellano dio en Bilbao el año 1963 (publicada en la revista *Euskera*, VIII-IX, págs. 179-198, 1963-1964). No conocía este prólogo cuando escribí mi primer prólogo. Y todas las demás opiniones, ahí están, a la espera de un más profundo examen. Pero, mientras tanto, algo mejor ha ocurrido, que el pueblo y los poetas jóvenes le han seguido: El pueblo con *Hoy es San Mamés, Rompamos la*

zagun katea eta gainerakoak; poeta gazteak molde berrietara irikiaz.

Gainera, Aresti berak eten gabeko lanean jarraitu du, bai teatroan eta bai poesian, eta oraindik frutu berri xamar dugu bere Euskal Harria izeneko liburua. Gaur, euskal poetetatik, kanpora begira zabalen jarri zaiguna da, eta, trukean, kanpoak guri begira jartzen gebien egin duena. Nabaitzen dudanez, oraindik goraka datorrena da eta eman dezake fruturik aski.

Eibar, 1968-ko abenduak 19.

Juan San Martín.

cadena y todas las demás; los poetas jóvenes abriéndose a nuevos estilos.

Además el propio Aresti ha continuado trabajando sin cesar, en teatro y en poesía, y todavía es un fruto bastante reciente su libro *La Piedra Vasca*. Hoy, es el poeta que más ampliamente ha mirado al exterior, y, en cambio, el que más ha conseguido que el exterior nos mire a nosotros. Por lo que puedo apreciar, todavía sigue su camino ascendente, y dará mayores frutos.

Eibar, 19 de diciembre de 1968.

Juan San Martín.